

Euskalingua 19

Aurkezpena

Irakurle hori,

Euskalingua 19n bost artikulu dira irakurgai. Lehenengoa, H. Legarrak egin dau eta Ariatza-Muxikako euskararen arau fonologikoen ganekoa da. Bigarrena, A. Etxebarria eta beste batzuk talde-lanean egin dabe eta testu irakurriei buruzko grafema hots korrespondentzia aztertu dabe. Hirugarrena, G. Aurrekoetxea eta L. Unamunok egin da eta euskara-gaztelania kode-aldaketari buruz da. Laugarrena, Aholab ingeniari taldeko I. Odriozola eta beste batzuk egindako lana da eta euskarazko ahoskera ebaluatze sistema baten garapenaz dihardu. Bosgarrena be Aholabeko ikerlariak aurkezten dabe eta bertan ahots-sintesi-sistema biren hobekuntza proposatzen dabe.

H. Legarrak *Zenbait arau fonologiko Ariatza-Muxikako euskararen* izenburua dauan artikuluan, Ariatzako informatzaileak aukeratu ditu; guztiak ama-hizkuntza euskara dabenak, 30 urtetik gorakoak, adin-tarteetan banatuta. Prestatutako galde-sorta, inkestak eta elkarrizketak xede izan daben analisia lortzeko egokituta egon dira, halan, hitzaren mailan, bokaleei eta kontsonantei dagozkien arau fonologikoen deskripzioa eta sailkapena egin dau.

Aintzane Etxebarria, Iñaki Gaminde, Urtza Garay eta Asier Romerok, *Gazte euskaldunek testu irakurrietan egiten dituzten grafema hots korrespondentziez* izeneko artikuluan, 1979tik 1993ra bitartean jaiotako euskaldunen irakurketa aztertu dabe. Bost informatzailearen, hiru hegoaldeko eta bi iparraldeko irakurketa ozena hartu dabe oinarri, bokaleen eta kontsonanteen ahoskeraren analisirako. Ahoskera guztiak Euskaltzaindiaren arauarekiko daben hurbiltasuna edo hurruntasuna zein informatzaileek elkarrekiko dabena hartu ditue kontuan, halan, esaterako, dardarkarien ahoskeran banaketa nabarmena da iparraldeko eta hegoaldeko informatzaileen artean. Edozein kasutan, irakurketa ozenak umearen garapen kognitiboan dauan garrantzia dala-eta, irakaslegaien prestakuntzan gai honek dauan garrantziaz oharrarazten dabe irakurlea.

G. Aurrekoetxea eta L. Unamunok *Perpau arteko euskara-gaztelania kode-aldaketa* artikulua eskaintzen dabe. Euskara gaztelaniagaz batera eremu geografiko berean izatearen ondorioz, hau da, ukipen-egoera deritzonaren ondorioz, gaurko zenbait hiztunek

eguneroko hitzeko elkarreraginean, egoera informalean, bizilagunekin darabilen hizkuntzan, batzuetan kode-aldaketak egiten ditu. Artikulu honetan, egileek Euskal Herriko mendebaldeko ama-hizkuntza euskara daben hiztun heldu eta adinekoen ahosko ekoizpenean azaltzen dan sintaxia mailako kode-aldaketa aztertu dabe, perpau nagusia eta menpeko perpauaren artean gertatzen dana, hain zuzen.

Aholab ingeniari taldeak bi artikulu dakartza *Euskalingua* 19ra. Bata, D. Erro, I. Hernaez, E. Navas, I. Odriozola, J. Sánchez eta I. Saratxagak idatzia, *Euskarazko ahoskera ebaluatze sistema baten garapena, ASR datu-basearen bidez* izeneko da. L2 hizkuntza ikaskuntzan, gaur egun ezagunak diren autoikaskuntza sistemak garatu ahal izateko ikerketaz dihardu artikulu honek. Ordenagailuz ahoskera egokia ekoizteko oinarritzkoa da fonemen puntuazioa zuzena. Esaldiko fonema bakoitza puntuatzeko, ASR datu-base orokorra erabiliz, CAPT deritzen ordenagailuz lagundutako ahoskeraren entrenamendurako sistemak diseinatze metodoa deskribatzen da bertan.

Bestea, D. Erro, I. Hernaez, E. Navas, I. Odriozola, I. Sainz, J. Sánchez eta I. Saratxagak idatzia, *MFCC+FO erauzketa eta ahots-uhina berreraikitzea HMM erabiliz: HMM sintesi-sistema batean lortutako aurretiko emaitzak* izeneko da. HMM (Hidden Markov Models) eta GMM (Gaussian Mixture Models) ahots-sintesi-sistemak ia estandarrak dira ahots-bihurketan. Biek dituzte, hala ere, errendimendu muga jakin batzuk; horietarik bat ahotsa parametrizatzeko eta berreraikitze metodoaren zehaztasuna da eta, artikulu honetan, ahotsa parametro estatistiko egoki bihurtzeko eta ahots-uhina berreraikitze metodoa proposatzen dabe, pertzeptzio –ebaluaketaren emaitzen arabera, HMM motako sintesi-sistemetan erabilgarria den metodoa.

Euskalingua 19ko artikuluok gustuko izango dituzulakoan, agurtzen zaitut.

Aulestin, 2011eko azaroaren 21ean

Maribi Unamuno

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es